

Diru iturriak

Publizitateari dagokionez, gure web orrian beste enpresen publizitatea jarri dezakegu, hortik dirua ateraz, baina jarriko ditugun enpresen publizitateak gutxienez ekologikoak izan beharko dute, hau da, beraien produktuak behintzat kaltegarriak ez izatea, bestela ez ditugu jarriko. Enpresa txikiekin egingo dugu akordio bat, diruaren truke gure web orrian beraien publizitatea jartzeko.

Webgunean bezeroei produktu bat saltzerakoan, diru iturri puntual bat izango da, hau da, bezeroek zerbait erosten duten bakoitzean ordaindu behar dute. Badaude beste saltzeko metodo batzuk, adibidez, periodikoa, prestamuzkoa, lizentziazkoa, etab. Baina guri ez zaizkigu egokiak iruditzen gure enpresarako.

Diru gehiago lortzeko pentsatu dugu, Amazonek egiten duen gauza bera egingo dugula. Enpresek beraien produktuak gure web orrian jarriko dituzte, guk saltzerakoan komisio bat kobratuko genuke. Dirua lortzeko metodo honi “Brokerren prima” esaten zaio.

Brokerren prima egingo dugunez, komisio bat kobratuko dugu, komisio hori %10-%15koa izango da; izan ere, prezio erreala ez du gehiegi puzten eta bezeroei ez zaie oso garestia irudituko. Gure produktuek 50 euro inguru balioko dute, orduan guk irabaziko genukeen komisioa $50 * 0.1 = 5$ euro eta $50 * 0.15 = 7.5$ euro tartekoa da.